



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

IFS (INTERNATIONAL FOOD STANDARD)

Sarrera

IFS araua (International Food Standard) elikagaien segurtasun-sistema da. Araua Alemaniako banatzaile txikizkariak eta Frantziako banatzaileak (handizkari nahiz txikizkariak) garatu dute eta Holandako eta Italiako banatzaileak onartu dute.

Kalitateari eta elikagaien segurtasunari buruzko arau bateratua garatzeko beharrianari erantzuteko sortu zen. Horretarako faktore erabakigarrienen artean, nabarmendu egin nahi ditugu kontsumitzaileen eskaerak, banatzaileak daukaten gero eta erantzukizun handiagoa, egunetik egunera lege-betekizun gehiago izatea eta produktu-hornikuntzaren globalizazioa.

Elikagaien industriarako beren-beregi egindako araua da; hots, kasu hauetan baino ezin da erabili: **produktu bat prozesatzen denean edo lehenengo ontziratze-prozesuan zehar kutsatzeko arriskua dagoenean.**

Garraiatu, biltegiratu eta banatu besterik egiten ez duten enpresentzat garatu da IFS Logistika araua, jarduera horiek jomugatzat dituenak.

IFS Arauaren egitura

IFS arauak lau atal ditu:

a) IKUSKAPENEN PROTOKOLOA

- Ikuskapenak ebaluatzea
- Ikuskapenak gauzatzea
- Zenbait pausu egiaztapena lortu arte

b) ESKAKIZUN TEKNIKOAK

IFS araua bost atalek osatzen dute:

- ❖ Zuzendaritzaren erantzukizuna.
- ❖ Kalitatearen Kudeaketa Sistema - APPCC.
- ❖ Baliabideen kudeaketa.
- ❖ Produkzio-prozesua.
- ❖ Neurtzea, aztertzea eta hobetzea.

c) EGIAZTAGIRIAK EMATEN DITUZTEN ORGANISMOENTZAKO ESKAKIZUNAK

d) TXOSTENAK

IFS arauaren funtsezko alderdiak

IFS arauaren helburua da txikizkako banatzaileei kalitatea kudeatzeko lanabesa ematea, bereziki bideraturik berari nahiz kontsumitzailearen babesari dagozkion lege-betekizunak betetzera.

Elikagaien Munduko IFS Segurtasun Arauak honako hauek eskatzen ditu:

- ✓ Enpresako zuzendaritza-taldearen konpromisoa: Arauak ezarritako betekizunak beteko direla erakusten duten beharrezko baliabideak izango dituzte.
- ✓ APPCC plana. Plan horrek ahalbidetu egingo du arreta jartzea elikadura-prozesuen eta elikagaien segurtasuna kolokan jartzen duten arriskueta, hain zuzen ere, produktuen segurtasuna bermatzeko berariazko kontrola eskatzen duten arriskueta.
- ✓ Kalitatearen kudeaketari buruzko sistema eraginkorra eta dokumentatua.
- ✓ Aurre-baldintzak jasotzen dituzten programak: enpresak izan behar dituen oinarriko ingurumen- eta funtzionamendu-baldintzak.

KO eskakizunak

IFSn zenbait eskakizun *KO* (Knock out) eskakizun izendatu dira. Ikuskatzea egiten den artean ikuskatzaileak uste badu konpainiak ez dituela eskakizunak betetzen, konpainiari ez zaio egiaztatzea emango edo, bidezkoa denaren arabera, egiaztatzea kenduko zaio edo bertan behera utziko da.

*KO*ren bat atzemanaz gero, beste ikuskatze oso bat egin beharko da, eta ikuskatze horretan adostasun-ebidentzia erakutsi beharko da. Bigarren ikuskatze hori ez da egingo *KO*ak atzeman ziren ikuskatzea egin eta 6 aste igaro baino lehen.

IFSn honako 10 betekizun hauek jotzen dira *KO*tzat:

- ♣ Zuzendaritzaren erantzukizuna.
- ♣ PCC bakoitzaren gainbegiratze-sistema.
- ♣ Langileen higijena.

- ♣ Lehengaien zehaztapenak.
- ♣ Amaitutako produktuen zehaztapenak (formula).
- ♣ Gorputz arrotzen kudeaketa.
- ♣ Trazabilitate-sistema.
- ♣ Barne-ikuskatzeak.
- ♣ Kentze- eta berreskuratze-prozedura.
- ♣ Jarduera zuzentzaileak.

Ebaluazio- eta egiaztatze-sistema

IFSn 250 betekizunak puntuatzeko lau aukera daude:

- A: Erabat ados** arauan aipatutako betekizunari dagokionez.
- B: Ia erabat ados**, baina desbideratze txikia atzeman da.
- C: Betekizunaren **atal txiki bat ezarri**** da bakarrik.
- D: Arauan ezarritako betekizuna **ez da ezarri**.**

KO betekizunak "A" edo "B" puntuazioarekin ebaluatuko dira, eta ez da baimentzen "C" puntuaziorik KO betekizun batean.

KO betekizunen bati D puntuazioa emanez gero, lor daitekeen guztizko puntuazioaren % 50 kenduko da, eta, ondorioz, zuzenean ondorioztatuko da konpainia ez dagoela IFS egiaztagiria eskuratzeko moduan.

Egiaztagiria:

Egiaztagiria lortzeko, betekizunen % 75 baino gehiago bete behar dira. Bestalde, Goi Maila lortzen da baldin eta betekizunen % 95 baino gehiago betetzen badira.